



DIRU SARRERAK

Hasierako inbertsioa egiteko behar ditugun diru sarrerak bi adar ezberdinetatik etorriko dira. Batetik, taldekide bakoitzak 2.000€ jarriko ditu, guztira 8.000€ izanik. Bestetik, banketxeari 10.000€-ko mailegua eskatuko diogu, horrela, 18.000€ izango ditugu, gure hasierako inbertsioaren kostuak estaliko dituztenak.

Jarduneko kostuei dagokienez:

Ohiko jardunean diru sarrera nagusia gure produktuen salmenta izango da, gure produktu nagusien salneurriak ondorengoak direlarik:

Mugikorreko fundak, txipa barruan dutela ekoizteak 5,64€-ko gastua suposatzen digu ale bakoitzeko. Beraz, hori kontutan hartuta 14,99€-tan salduko dugu ale bakoitza. Aldiz, aurikularreko fundak, hauek ere txiparekin batera, ekoizteak 3,89€-ko gastua duenez, 9,99€-tan salduko dugu alea. Giltzatakoea egitearen prezioa berriz, 1,95€-koa da ale bakoitzeko. Hori dela eta, 5,99€-etara salduko dugu ale bakoitza. (Giltzatakoea gainera, produktu hauetan erabilgarria izango da: diru zorroa, motxila, berokia). Kableak babesteko animaliak egitearen kostua 4,40€-koa da ale bakoitzeko. Ondorioz, 11,99€-etara salduko dugu ale bakoitza.

Produktuak pack-etan ere salduko dira, bezeroek produktuak banaka erosiko balituzte baino errentagarriagoak direnak, hauei deskontu bat aplikatzen diegulako. "Pack single" ekoizteak 13,94€/ kostatzen zaigu ale bakoitzeko, baina enpresak irabaziaz izateko, 34,99€-tan salduko dugu ale bakoitza. Ondorioz, %10-eko deskontua aplikatu dugula ikus daiteke, produktuak solte erosiko balituzte, 38,96€ kostatuko zitzaielako. Beste pack guztietan ere deskontuak aplikatzen ditugu. "Pack DUO" ekoizteak 27,88€ kostatzen zaigu guztira eta irabaziaz izateko 69,99€-tan salduko dugu Pack-a. "Pack familiar" ekoizteak, 56,66€ kostatzen zaigu eta 149,99€-tan salduko dugu. Azkenik, "Pack familiar premium" egiteak 91,44€ kostatzen zaigu eta 229,99€-tan salduko da irabaziaz izateko. Gure iritziz, den produktua izateko, prezio egoki eta on batean saltzen da.

Pack single-an sartzen diren produktuak hurrengoak dira: giltzatakoea, kableak babesteko animalia, mugikorrerako funda eta diru-zorroarentzako txip-a. Pack DUOn pack single-aren bikotza sartuko litzake eta Pack Familiarrean, motxilarentzako 4 gailu, berokiarentzako 2, giltzatakoearentzako 4 eta kablearentzako beste 4, gehi mugikorrarentzako 4 funda. Azkenik Pack Familiar Premium-en motxilarentzako, berokiarentzako, giltzatakoearentzako eta kablearentzako 6 gailu eta baita mugikorreko 6 funda eskaintzen ditugu.